

OÑATIKO UDALAREN ETA ASOCIACIÓN DE AYUDA Y COLABORACIÓN CON EL PUEBLO SAHARAUI "JAIMA" ELKARTEAREN ARTEKO ELKARLANERAKO HITZARMENA, "OPORRAK BAKEAN 2024" HARRERA PROGRAMAREN BAITAN OÑATIKO HAINBAT FAMILIETAN UDARAN 4 ADIN TXIKIKORI ALDI BATERAKO HARRERA EGITEKO DIRULAGUNTZA ZUZEN EZ-IZENDUNA BIDERATZEKO

BILDU DIRA

Alde Batetik, IZARO ELORZA ARREGUI, 15396342-G NAN zenbakiduna, esku hartzen du Oñatiko Udalaren ordezkari gisa.

Bestetik, MOHAMED FADEL BRAHIM AHAMED, NAN zk 46426786K duena, ASOCIACIÓN DE AYUDA Y COLABORACIÓN CON EL PUEBLO SAHARAUI "JAIMA" (G01462787) elkartearen izenean eta haren ordezkari gisa (hemendik aurrera onuraduna)

Batak besteari hitzarmen hau izenpetzeko gaitasuna duela aitortuz, eta kontutan hartuta jarraian azaltzen diren

HELBURUAK

Lehenengoa.- Lankidetzat hitzarmen honen helburua dela onuradunaren alde bideratzea Oñatiko Udalak indarrean duen aurrekontuko 1 0391.481.231.61.01 2024 (5624) diru-ataleko dirulaguntza hau: ASOCIACIÓN DE AYUDA Y COLABORACIÓN CON EL PUEBLO SAHARAUI "JAIMA" ELKARTEAREN ALDEKO DIRULAGUNTZA ZUZEN EZ-IZENDUNA BIDERATZEKO HITZARMENA, "OPORRAK BAKEAN" HARRERA PROGRAMA 2023-RAKO. Era berean, xedea du onuradunak bere gain hartzen dituen baldintzak eta konpromisoak ezartzea.

AURREKARIAK

Lehenengoa.- "Oporrak Bakean" haur Sahararekiko elkartasun programa bat da, bakearekiko bultzada eta injustizi eta gerraren kontrakoa. Programa honi esker, uda sasoian bizi baldintza horietatik urruntzeko aukera eskaintzen zaie bertako neska-mutilei, eta beren osasuna eta garapena berreskuratzeko aukera ematen zaie.

Bigarrena.- ASOCIACIÓN DE AYUDA Y COLABORACIÓN CON EL PUEBLO SAHARAUI "JAIMA" elkarte nazioarteko elkartasunerako xedea duen elkarte bat da, eta bere helburuek artean ditu: Euskal Herriko eta Saharako herrien arteko giza harremanak eta harreman kulturalak sustatzea; Saharako neska-mutikoen bisita sustatzea, kanpamentuak dauden basamortuaz bestelako errealitateak ezagutzeko aukera izan dezaten; eta aurreko helburuetarako planteatzen diren erakunde eta organismoekiko lankidetzat.

Hirugarrena.- Oñatiko Udaleren helburua da herri saharuiarrari laguntzeko nazioarteko elkartasunerako lankidetzan ari diren arloko eragileei erraztasunak ematea, kontuan izanda udalak ez duelako nahikoa baliabide bere kabuz helburu hori betetzeko.

Laugarrena.- Bi erakundeen helburuak bat egiten dute eta hitzarmen honen bidez 2024 urtean elkarlanean jarduteko konpromisoa adierazten dute, "Oporrak Bakean" elkartasunerako harrera programa garatzeko.

Bosgarrena.- 2024ko maiatzaren 7ko dataz, Asociación de Ayuda y Colaboración con el Pueblo Saharaui "JAIMA" elkarteak Mohamed Fadel Brahim Ahamed ordezkari, honako eskaera egin dio Udalari (3265 sarrera zk): "Solicitamos el pago de los billetes de los 4 menores que serán acogidos por familias de Oñati con el programa vacaciones en paz 2024".

Eskaerekin batera, Euskadiko Saharar Ordezkaritzaren udalei bidaliko gutuna erantsi du, non adierazten den:

"Oporrak Bakean" haur sahararrekiko elkartasun proiektu bat da. Elkartasun proiektu horrek aukera eskaintzen die haur sahararrei liburuetan soilik ezagutzen duten errealitatea (errekak, mendiak, basoak, itsasoa eta abar) ikusteko, hemengo haurrekin elkarbizitzeko eta errefuxiatuen kanpamentuetako egunerokotasunetik oso ezberdina den munduarekiko beste irudi bat izateko.

Haur horiek 9 eta 12 urte bitartekoak dira, errefuxiatuen kanpamentuan jaio eta hazi dira, eta, beraien familiekin batera, erbesteratze luze bat sufritzen ari dira. 1975ean Espainiak alde batera utzi zituen, eta ordutik era guztietako beharrak pairatu eta pairatzen dituzte; elikadura, osasuna eta hezkuntza bezalako lehen mailako beharrak barne, eta udan 50º graduraino iristen diren tenperaturak jasan behar izaten dituzte.

Aurten gure herrietara 200 haur inguru etortzea espero da. Eta gure artean ekainaren 20edo 28tik abuztuaren 24 edo 30ra arte egongo direla aurreikusten da.

Haur bakoitzeko kostua 790€ €-koa izango da, eta honako gastu hauek sartzen dira:*

- Haurrak eta begiraleak Tinduf-Bilbo/Foronda-Tinduf bidaiatu ahal izateko hegazkin bidaia.
- Hegaldi horretan ez datozen haurrak hegaldi erregularrean edo beste erkidego baten bidez etorriko dira.
- Haurren eta begiraleen pasaporteak eta bisak, Gazteria eta Kirol Ministerioaren bitartez kudeatuak.
- Haurren aseguru pribatuak.
- Begiraleen mantenua.
- Kudeaketa gastuak.
- Pultsera identifikagarriak eta akreditazioak.
- Nahitaez egon behar duen anbulantzia."

Seigarrena.- 2024ko maiatzaren 29ko dataz, Asociación de Ayuda y Colaboración con el Pueblo Saharaui "JAIMA" elkarteak, Mohamed Fadel Brahim Ahamed ordezkari, honako informazio osagarria aurkeztu dio Udalari (3748 sarrera zk):

- Banku-kontuaren titularitatearen frogagiria.
- Erantzukizunezko aitorpena edo deklarazioa, elkarteak DLOren 13.2 artikulua aurreikusten dituen debekuetan sartua ez dagoela dioena

- Zerga-betebeharak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean edukitzeari buruzko ziurtagiriak.
- 3 familia hartzaileen errolda agiriak
- 4 familia hartzaileetan sexu-izaerako delituen ez izatearen ziurtagiria

Zazpigarrena.- 2024ko ekainaren 14ko dataz, Asociación de Ayuda y Colaboración con el Pueblo Saharaui "JAIMA" elkarteak, Mohamed Fadel Brahim Ahamed ordezkari, honako informazio osagarria aurkeztu dio Udalari (4069 sarrera zk):

- 4. familia hartzailearen errolda agiriak

Zortzigarrena.- Oñatiko Udalak Asociación de Ayuda y Colaboración con el Pueblo Saharaui "JAIMA" elkarteari bideratuko dion dirulaguntzak elkartearen eta udalaren arteko elkarlanean dauka oinarria.

Bederatzigarrena.- 2024ko udal aurrekontuetan izendatuta dago nazioarteko harrera laguntzarako ekimenentzat diru atala bat, 1 0391.481.231.61.01 2024 (5624) zenbakia duena eta "Oporrak Bakean" programaren helburuekin bat egiten duena.

Hamargarrena.- 2024ko maiatzaren 14ko Oñatiko Udaleko Partaidetza eta Garapen Komunitarioko informazio batzordeak proposatu zuen Asociación de Ayuda y Colaboración con el Pueblo Saharaui "JAIMA" dirulaguntza ematea eta bi erakundeen arteko lankidetzak hitzarmena sinatzea, 2024ko "Oporrak Bakean" programaren baitan.

Horrela beraz, azalduko aurrekariak kontuan hartuta, erakunde biek

HITZARTZEN DUTE:

Lehenengoa.- Oñatiko Udalak 3.160 €-ko dirulaguntza emango dio Asociación de Ayuda y Colaboración con el Pueblo Saharaui "JAIMA" elkarteari, 2024ko "Oporrak Bakean" programaren baitan eta 1 0391.481.231.61.01 2024 (5624) diru atalaren eta bere lotespen mailaren kargura, Oñatiko 4 harrera familietara datozen 4 adin txikikoren bidaia gastuetarako (haur bakoitzeko 790,00 €).

Bigarrena.- Elkarteak 2024ko "Oporrak Bakean" programan jasandako gastuak finantzatzeko erabili ahal izango da dirulaguntza, beti ere jarraian zehazten diren baldintza eta mugak aintzat hartuta.

Hirugarrena.- Diruz lagundu daitezkeen gastuak adin txikikoen bidaiari, aseguruari eta egonaldiaren kudeaketari lotutakoak izango dira.

- Adin txikikoak bidaiatu ahal izateko hegazkin bidaia edo beste garraioi batzuetako bidaia gastuak.
- Hegazkinean edo beste garraio bide baten hurrekin datozenen gastuak.
- Adin txikikoen pasaporte eta bisatuen kudeaketa gastuak
- Adin txikikoen aseguru pribatuak.
- Eskumuturreko identifikatzaileak, akreditazioak

- Egonaldiari loturiko bestelako gestio gastuak.

Laugarrena.- Dirulaguntzaren ordainketa egin ahal izateko, onuradunak dokumentazio hau aurkeztu beharko du:

- Erakunde eskatzailearen banku-kontuaren titularitatearen frogagiria, eskaera egin duen erakundearen identitatearekin bat etorri behar dena.
- Onuraduna DLOren 13.2 artikulua aurreikusten dituen debekuetan ez dagoela sartua dioen erantzukizuneko aitortza edo deklarazioa.
- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beteta edukitzeari buruzko ziurtagiriak.
- Harrera familien errolda agiriak.
- Harrera familietan sexu-izaerako deliturik ez izatearen ziurtagiriak.

Bosgarrena.- Dirulaguntza hau bateragarria izango da beste erakunde publiko edo pribatuetatik jasotako dirulaguntzekin, beti ere, gain-finantzazioa gertatzen ez bada. Kasu horretan udalak emandako dirulaguntza zenbatekoa gutxituko da gastu eta sarreraren arteko diferentzia orekatu arte. Gain-finantzazioa gertatzen bada elkarteak izango du udalari jakinarazteko eta dirulaguntza itzulketa egiteko betebeharra.

Seigarrena.- Dirulaguntza hau berezia denez eta programaren bideragarritasuna bermatzeko, ordainketa aurreratua ezartzen da, kontuan hartuta onuradunak eskura dituzten baliabide ekonomikoen izaera eta muga, zein programa presazkoa eta berehalakoa dela, abenduaren 27ko 12/2007 Legearen 36.1 artikuluekin bat etorritz.

Horrenbestez, dirulaguntza hau hitzarmena sinatzen den momentuan ordainduko da osorik eta ondoren justifikatu beharko dituzte gastuak.

Zazpigarrena.- Dirulaguntza emateko helburua bete duela justifikatzeko eta jasotako dirua zertan erabili duen zuzitzeko onuradunak duen epea 2024ko abenduaren 31ean amaituko da.

Justifikatzeko modua KONTU ZURIGARRIA delakoaren bidez egingo da, honako dokumentu hauek izango dituen:

- Memoria ekonomikoa, eta bertan jasoko dira dirulaguntzaren gastuen zerrenda sailkatua, ordenatua eta lotutako zenbatekoak.
- Fakturak edo merkataritzako trafiko juridikoan horien balio berekoak diren frogagiriak eta dokumentuak.
- Erantzukizuneko aitorpena, non adieraziko baita aurkeztutako fakturak ez direla erabili eta ez direla erabiliko beste dirulaguntza batzuk justifikatzeko.

Gastuak egiaztatze oinarritzko dokumentazioa faktura da.

Aurkeztutako fakturak onargarriak diren ala ez zehazteko 1619/ 2012 Errege Dekretuak, azaroaren 30ekoak, fakturazio-betebeharrak arautzeko erregelamendua onartzen duenak, 6.1. artikuluan fakturen edukiei buruz dioena jarraitu beharko da. Faturek edo pareko agiriek zenbakiak izango dituzte, memoria ekonomikoko zerrendan adierazitako zenbakiei jarraikiz.

Zortzigarrena.- Hitzarmen honen iraupena adin txikikoen egonaldiarekin hasi eta egonaldia amaitu eta gastuen kitapena egiten denean bukatuko da.

Bederatzigarrena.- Hitzarmen hau izenpetzean, sinatzen duenak deklaratzeko du bertan ezarritako betekizun guztiak bete egiten dituela eta hemen jasotako baldintza eta betebeharrak guztiak goitik behera onartzen dituela.

Aldi berean, izenpetzen duenak adierazten du Oñatiko Udalari eman dizkion Datu Pertsonalak bere onespenez eman dizkiola eta datu horiek Oñatiko Udalak behar bezala baimenduta dituen fitxategietan sartzeko eta tratamendu automatizatua emateko baietza ematen duela.

Sinatzen duenak deklaratzeko du, hitzarmen hau izenpetzeko eman duen informazioa egiazkoa dela, ez duela isilean ezer gorde edo aldatu.

Hitzarmena sinatu duenak baimena ematen dio Oñatiko Udalari:

- a) Izaera pertsonaleko datu horiek udal kudeaketarako bakarrik erabiltzeko; hala ere, beste Administrazio Publiko batzuei edo beste inori laga edo jakinarazi ahal izango zaizkie datuok 3/2018 Lege Organikoan, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa, aurreikusitako kasuetan.
- b) Hitzarmen honen xede den dirulaguntza zuzen kudeatzeko garrantzizkoa den informazio guztia eskuratu ahal izateko, udal sail eta atal guztietan eta beste administrazio publiko batzuen fitxategietan beharrezkoak diren kontsulta guztiak egiteko.

Azkenik, Hitzarmen hau izenpetzen duenak deklaritzen du berak eman dituen datuak eskuratzeko aukeraren inguruko argibide guztiak eman zaizkiola eta, hala bada, esandako Lege horrek ezarritako moduan, datu horiek zuzentzeko, datuen aurka egiteko edo ezabatzeko eskabidea egiterik ere baduela, Oñatiko Udalean datuen tratamenduari buruzko arduradunarengana zuzenduta: Oñatiko Udala, Foruen Enparantza, 1; 20.560, Oñati (Gipuzkoa). Eskabidea egiteko datu hauek eman behar ditu: izen-abizenak, helbidea jakinarazpenak bidaltzeko, eskaera zehatza, data, interesdunaren sinadura eta fitxategiaren izena.

Hamargarrena.- Hitzarmen honetatik sor daitezkeen auzigaiak, hitzarmenak berak izaera juridiko-administratiboa duenez, administrazioarekiko auzietarako jurisdikzio-ordenaren menpe geratuko dira.

Eta alde biak hitzarmen honetan jasotakoa onartzen dugula adierazteko, hitzarmen hau sinatzen dugu behean adierazitako egun eta lekuan

OÑATIKO UDALEKO ALKATEA

Izaro Elorza Arregui

ASOCIACIÓN DE AYUDA Y COLABORACIÓN
CON EL PUEBLO SAHARAUÍ "JAIMA"
ELKARTEA

Mohamed Fadel Brahim Ahamed



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas	
Titulua / Título:	Oñatiko Udala - Jaima hitzarmena 2024
CSV/EKS:	SINA60253174-78f5-47df-beeb-aaf0eb8ce182